

HIRIGINTZA FITXA.- 6 SO. KIROLDEGIA

DEBA ALDEA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Hirigintzako esku-hartze alderdi hau Debako hiri alderdiko kiroldegiak osatzen du.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

6 SO esparrurako ez da planeamenduko inolako figurarik ez idatzi ez onartu.

1.2. HIRI EGITURA.

Kirola finkatu denez eta Ostolazako gunetik nahiz kirol pistetatik gertu egonik, eta sistema orokorra handitu eta hiri alderdiaren egitura orokorrean txertatu delarik, esparruaren tamaina eta ezaugarriak nahikoa dira eskola erabilerarako nahiz eskola ordutik kanpo aisia eta olgetarako.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 3.090 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarra.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunitatearen ekipamenduko zona: kirol ekipamendua (11. artikulua: G.3).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Hiri Antolaketako Arau hauen ondorioetarako, hirigintzako esku-hartze alderdi hau hirigintza alderdi bakar bat bezala eratu da.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Behin sistema orokorrari eman beharreko erabilera (kirolekoa) zehaztu ondoren, esparrua garatu eta gauzatze aldera kirol premiei aurre egiteko beharrezkoa den lurzoru erreserba baliatu beharko da, eta horiek aldameneko 5 SO esparruko eskola erabilerarekin bateragarriak izango dira. Esparrua handitzeko lurzoru horretan bertan hartu beharko dira kiroldegiarekin bateragarriak diren beste erabilera batzuk, lurpeko aparkaleku publikoak paratzeko aukerak barne.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA. Komunitatearen ekipamenduko sistema orokorra: kirol ekipamendua.

4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

4.1. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Etorkizunean aldameneko 5 SO esparruan ezarri nahi diren zuzkidurak garatzeko beharrezkoak diren eraikuntzak ezartzea baimenduko da.

Eraikuntza. Handitzearen ezaugarriak dagokion oinarrizko eta gauzapeneko proiektuan finkatuko dira.

Erabilera Erregimen orokorra, 12. artikulua araberan.
Zehaztapenak: erabilera baimenduak: irakaskuntza ekipamendua.

Kirol ekipamendua.

Kirol parkea.

Lurpeko aparkalekua.

Espazio libreak: haurrentzako jolaslekuak, lorategiak.

Erabilera debekatuak:

Etxebizitza.

Industrialak.

4.2. JABARIA

Jabari publikoa:

Handitzea egiteko lurzoru erreserba jabari publikokoa bihurtu beharko da.

4.3. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuetan finkatuko dira.

4.4. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Xehetasunezko azterketa.

Hiritartze proiektua.

Eraikuntza proiektua.

4.5. JARDUKETA SISTEMA.

Desjabetzea.